

Sorolla eta margolari inpresionistak

Ikas Vital

Kordoi Etxea

2024ko urriaren 4tik abenduaren 20ra

Ostirala 12:00etatik 13:30era

40 €



Fundación Vital Fundazioak prestakuntza eta kultur ikastaroen sorta zabala eskaintzen du. Ikastaro horiek aurrez aurre nahiz online egiten dira, eta gai desberdinetan adituak diren irakasleek ematen dituzte.

Informazioa

Edukiak

- Paisaiaren pintura genero artistiko independente gisa sortzea. Gai erlijioso, historiko eta mitologikoak eta errege eta nobleen erretratua gainditzen dituen estetika garaikide baterantz.
- Lorategietako pintura errealismoaren eta inpresionismoaren artean. Gizakiak eraldatutako natura. Lorategiaren kontzeptua; Gasteizko kasu bat: Florida parkea, garaiko testuinguru bat azaltzeko. Eta Amerikako lorategia.
- Sorolla. Artea eta bizitza. Testuinguru historikoa eta sormen-etapak. Pintore soziala;

argiaren eta kolorearen pintorea garai historiko ilunetan; bere arrakastak Europan eta Estatu Batuetan, aitorpenak eta ahanzturak. Gaur egungo legatua.

- Sorolla museo-etxea, valentziar margolariaren begiradaren luzapen gisa: arima duten txokoak.
- Pintura inpresionistaren sorrera, fenomeno artistiko gisa. Aurrekariak: Constable eta Turner; Barbizongo Eskola. Eduard Maneten lan aitzindaria.
- 1874an inpresionismoak asmatu zuen erakusketa (eta beste zazpi gehiago 1888ra arte). Ibaien aurkikuntza estetikoa; itsasoa; uraren alaitasuna; aisia eta gizarte modernoa: kaleak eta etorbideak, kabaretak eta kafetegiak, trena eta zubiak.
- Frantziako inpresionismoaren protagonista nagusiak: Claude Monet, Camille Pissarro, Jean Auguste Renoir, Edgar Degas, Paul Cezanne... Pintura inpresionistaren irismena eta mugak.
- Kolorea balio espresionista eta sinbolista gisa: Vicent Van Gogh eta Paul Gauguin.rte.

Ordutegia, iraupena eta lekua

Kordoi Etxean (Aiztogile kalea 24) ostiralak 12:00etatik 13:30era. Urriaren 4tik abenduaren 20ra.

Jai-egunak:

- Azaroak 1
- Abenduak 6

Prezioa

40 €

Ikastaroaren garapena

Ikastaroa: Santiago Arcediano, Historian lizentziatua, Artearen Historian doktoratua.

Izen-emateak

IZEN-EMATEAK AGORTUTA

Vital Fundazioarekin harremanetan jar zaitezke 945776858 zenbakian edo, bestela, egoitzan bertan (Aiztogile kalea 24), hutsik gera daitezkeen plazak betetzeko.